BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

2049

EBAZPENA, 2013ko apirilaren 8koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Sterile Services SL enpresak Gordexolako udalerrian sustatzen duen hondakin sanitarioak esterilizatzeko instalazioari dagokion proiektua, eta proiektuak berak ingurumenean duen eragina ebaluatzeko azterlana jendaurrean jartzen duena.

Hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 21eko 22/2011 Legeak xedatutakoaren arabera hondakinen kudeaketa jarduerak Autonomia Erkidegoko ingurumen organoaren baimena behar dute.

Proiektuek ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateratua onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikuluak ezarritakoari jarraituz, proiektuek, publiko zein pribatu izan, obrak, instalazioak edo aipatutako I. eranskinean jasotako edozein jarduera burutzeko, ingurumenean izan dezaketen eraginaren ebaluazioa behar dute, legean adierazitako moduan eginda.

Ingurumen organo honetan izapideak hasi dira Sterile Services SL enpresak Gordexolako udalerrian sustatzen duen hondakin sanitarioak esterilizatzeko instalazioaren baimena lortzeko, eta proiektuak ingurumenean duen eragina ebaluatzeko.

Proiektuek ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateratua onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak eta xedapen hori garatzeko Arautegia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak aurreikusten duten prozeduraren arabera ingurumen-inpaktuaren azterlana jendaurrean jarri behar da.

Organo honek du ebazpen hau emateko eskumena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren arabera.

Aintzat hartu dira Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; proiektuek ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateratua onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua; xedapen hori garatzeko Arautegia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta oro har eta bereziki aplikagarri den araudia. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Sterile Services SL enpresak Gordexolako udalerrian sustatzen duen sustatzen duen hondakin sanitarioak esterilizatzeko instalazioaren proiektua, eta proiektuak berak ingurumen-inpaktua ebaluatzeko azterlana jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta 30 egun balioduneko epean. Epe horretan bidezko iritzitako arrazoibideak aurkeztu ahal izango dira.

2. artikulua.– Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, proiektua eta proiektuak berak ingurumen-inpaktua ebaluatzeko azterlana Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzan egongo da eskuragarri (Donostia kalea 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz), bai eta Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Bizkaiko Lurralde Zerbitzuan ere (General Concha 23, 7. solairua, Bilbao).

Era berean, adierazitako dokumentazioa hiritarrek errazago eskura dezaten, aipatutako espedientea Gordexolako Udalari bidaliko zaio, horrek espedientea erakusteko, jendaurrean jartzeko epean.

Era berean, adierazitako dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taulan (https://euskadi.net) izango da, hiritarrek errazago eskura dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 8a.

Ingurumeneko sailburuordea,
JOSÉ ANTONIO GALERA CARRILLO.